Parkea bizirik
kukulunbera

ARMARRI-ZIMITZ JASPEZTATUA

GIPUZKOA, ATERPE BERRIA ZIMITZ INBADITZAILE BATENTZAT

OHARRA: BOLUNTARIOTZAREN LAN DENBORA, 2022KO URRIAREN 1etik AZAROAREN 4ra

Armarri-zimitz jaspeztatua da *(Halyomorpha halys)* eta dagoeneko Gipuzkoako udalerrien zerrenda luze batean dago. Gure inguruan, Donostian, Astigarragan eta Oiartzunen ikusi dugu.

Korea, Txina eta Japonen du jatorria. Eraikinen arrailduretan, etxe eta autoen barnealdean edota hiriko zuhaitzen izerdia xurgatuz ikus dezakegu.

Txile, Argentina eta Estatu Batuetan, esaterako, laboreei egindako kalteagatik izurrite deklaratu dute. Herrialde horietako batek ere ez du desagerraraztea lortu. Zimitz horrek, Italiako eskualde batzuetan, udareen laborantzaren % 50 kaltetu eta hondatu du, eta zuzenean produktuaren garestitasunari eragin dio.

Munduko merkataritzak, giza mugikortasunak eta azpiegitura handiek, besteak beste, Amerika, Europa, Zeelanda Berria, Australia eta Hegoafrikara iristeko bideak osatzen dituzte, adibide batzuk aipatzearren. Egokitzeko duen gaitasunak eta espezie hegalaria izateak, zimitz espezie hori barreiatzen laguntzen dute.

Armarri-zimitz jaspeztatua intsektu pikatzaile-xurgatzailea da. Zuhaitz, landare apaingarri, fruta eta barazki espezie askoren hostoak ditu elikagai.

Europan, 2007an Suitzan, 2016an Gironan eta 2018an Gipuzkoan aipu zen.

Intsektu laua da. 1,2-1,7 cm luze eta 0,7-1,0 cm zabal da. Antenetan banda argiak eta ilunak txandakatzeagatik antzematen da. Sabelaldetik irteten den alde laua laukizuzen formako orban argiek markatzen dute, orban beltzekin tartekatuta.

Udaberrian eta udan 30 arraitza inguruko bi errunaldi egiten ditu. Urrian, bere populazio-eztanda agerian geratu da; nonahi hibernatzeko aterpe bila guztiok ikusi baitugu. Zimitzaren bizitzaroa urtebetekoa da.

Zirikatzen bazaio edo mehatxatuta sentitzen bada, usain gogaikarri eta iraunkorra isurtzen du; horren ondorioz, animaliak zein gizakiok urrundu egiten gara. Armarri-zimitz jaspeztatuak ez ditu ez pertsonak ez animaliak ziztatzen. Ohe-zimitzak ez bezala, ez du odolik xurgatzen eta ez du ziztadarik eragiten. Ez da arriskutsua jendearentzat.

Pertsiana-kutxetara sartzeko zirrikituak gustatzen zaizkio, eta hortik babes bila sartzen da. Arropa eseki berriaren hezetasunak ere izugarri erakartzen du, ura xurgatzera joaten baita. Kanpoko esekileku batean bi eskuoihal heze zintzilikatzen badira, bata izerdiaren hondarrak jota eta bestea uraren kareak jota dutxaren manpara lehortu dugulako, hegan, giza izerdiaren gatzak dituenera abiatu eta pausatu egiten da, bestea baztertuz. Bere eskuoihal gogokoenean orduak iragaten ditu eta, hortik, eskuoihalak bildu eta tolestean, aurretik animalia hor dagoen gainbegiratu ez badugu, etxera sar dakiguke. Barrualdera iritsitakoan, hormetan, kristaletan eta sabaietan barrena mugitzen da, eta barruko landareen hostoetara eta fruta-ontzira ere joaten da.

Esekilekutik jasotako arropa lehorra zimitz inbaditzailea dagoen begiratu gabe janztea eta kamisetaren eta azalaren artean korrika nola egiten duen sentitzea, Gipuzkoan dagoeneko jendeak pairatzen duen bizipena da.

Katilu bat ur eta koilarakada bat *usain-iltze* espeziaren olio esentzial nahasten eta ihinztatzen badugu, zimitza bere gordelekuetatik aterarazi eta urrunarazi dezakegu, espeziaren usaina batere gustuko ez duelako.

Donostiako Begiristain Doktorea Pasealekuan (ospitaleetara igoera), zehatz-mehatz semaforoetako baten aldamenean, astigar zuri *(Arce pseudoplatanus)* bat dago, zimitz inbaditzaile horrek izurrituta. Hosto berde zabalek zetaka borobil beltz ugari agertzen dituzte, zentimetro bateko diametroa dutenak. Zauri nekrosatuak dira. Hostoak eta frutak ziztatzen eta xurgatzen dituen lekuetan, orban beltzak eta landareari egindako kalteak agertzen dira. Zuhaitzaren ondoan, baranda bat eta semaforo bat (ikus argazkiak) daude, eta bertatik zimitza korrika eta atseden hartzen ikusi dugu.

Parkea bizirik
kukulunbera

Argazki- eta bideografia-lanetan, ez da suertatu beste animaliaren bat zimitzak harrapatzera hurbildu denik. Liztor espezie batzuek, hala nola *(Anastasus bifasciatus),* armarri-zimitz jaspeztatuaren arrautzak parasitatzen ditu. Europako ipurtsadeak *(Forficula auricularia)* eta *(Crematogaster scutellaris)* izen zientifikoa duen inurriak, zimitz horren larbak ere harrapatzen dituzte, espezie inbaditzaile berri horren hedapen esponentziala moteltzen lagunduz.

Gogora dezagun espezie inbaditzaileak beren banaketa naturaleko eremutik kanpo garatzen diren animaliak, landareak edo beste organismo batzuk direla. Ekosistemen aberastasunean eta aniztasunean aldaketak eragiten dituzte, eta, oro har, oso kaltegarriak dira, bertako aniztasun biologikoa arriskuan jartzen baitute.

Horrelako inbasioek galera ekonomiko handiak eragiten dituzte, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan dituzten zuzeneko ondorioengatik.

Indotxinako katagorri bat Donostiako Ulia *mendian (Callosciurus finlaysonii, 2020ko abendua)*, Madagaskarren jatorria duen onddo inbaditzaile laranja bat Astigarragako basotxo batean *(Favolaschia calocera, 2022ko uztaila)* eta orain, Donostia, Astigarraga eta Oiartzunen, Asiako armarri-zimitz jaspeztatua *(Halyomorpha halys, 2022ko urria)*, azken aldiotan eta gure inguruan Parkea Bizirik-ek dokumentatutako espezie inbaditzaileak dira.

Guztion begi-bistan denez, ingurumen-kaosa gero eta handiagoa eta arriskutsuagoa da eta, gerora, kaos horrek ustekabeko ondorioak eragin diezazkiguke.

Euskarazko bideoxka YouTuben:

Armarri-zimitz jaspeztatua. Beste espezie inbaditzaile bat Gipuzkoan. 2022ko urria.

https://youtu.be/DhL2a1rfEnE

Parkea Bizirik *"Kukulunbera"*

Egian, 2022ko azaroaren 4an

Armarri-zimitz jaspeztatua

Chinche marrón marmolada /

Chinche apestosa marrón



(Halyomorpha halys)

Argazkiak & dibulgazio-artikulua. Joseba Gurutz de Vicente

Begiristain Doktorea Pasealekua (Donostia)

Astigar zuria, baranda & semaforoa, zimitzak izurrituak

2022ko urria

Astigar zuriaren hosto nekrosatuak

Hezetasuna xurgatzeko asmoz, zintzilikatutako jantzietan pausatzen da